Honekin batera bidaltzen dizut txostena, Etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentziak prestatu duena.
[12\11\09\00\00006]

Eusko Legebiltzarra, 2022ko martxoaren 24a

Legelaria

Se adjunta informe elaborado por la Ponencia para definir las bases del acuerdo sobre el futuro sistema educativo vasco.
[12\11\09\00\00006]

Parlamento Vasco, 24 de marzo de 2022

Letrada

Zelai Nikolas Ezkurdia

HEZKUNTZA BATZORDEARI

ETORKIZUNEKO EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO HITZARMENAREN OINARRIAK ZEHAZTEKO PONENTZIAREN TXOSTENA

A LA COMISIÓN DE EDUCACIÓN

INFORME DE LA PONENCIA PONENCIA PARA DEFINIR LAS BASES DEL ACUERDO SOBRE EL FUTURO SISTEMA EDUCATIVO VASCO

*Marina Garcés: "Ikaskuntza gizarte-bizikidetza osoaren humusa da".*
*Jean Piaget: "Kalitatezko hezkuntza inklusiborik gabe eta bizitza osoan ikasteko aukerarik gabe, herrialdeek ez dute lortuko milioika pertsona atzean uzten dituen pobrezia-zikloa haustea" .*
*Zer ikusi, ha ikasi (euskal esaera zaharra).*

*Marina Garcés: "El aprendizaje es el humus de toda la convivencia social".*
*Jean Piaget: "Sin una educación inclusiva de calidad y sin oportunidades de aprendizaje a lo largo de la vida, los países no conseguirán romper el ciclo de pobreza que deja atrás a millones de personas".*
*Zer ikusi, ha ikasi (antiguo proverbio vasco).*

**Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko batzordeburuaren txosten-proposamena: "Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien txostenaren zirriborroa"**

SARRERA
Euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailea
Zergatik lege bat?
EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN BALIO, PRINTZIPIO ETA HELBURUAK
Balioak
Printzipioak
Helburuak
HEZKUNTZARAKO ETA BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA
Bizikidetza eta aniztasuna
Plangintza eta hezkuntza-sistemarako sarbidea
Doakotasunaren bermeak
Derrigorrezko eta doako irakaskuntzak
LIDERGO BERRIAK ETA GOBERNANTZA-EREDUAK
Hezkuntza-komunitatea
Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa
Ikastetxeen lankidetza-gobernantza
Programa-kontratua
Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza
Gizarte- eta hezkuntza-programak: administrazioen erantzunkidetasuna
Tokiko hezkuntza-kontseiluak
Euskadiko Eskola Kontseilua
Consejo Escolar de Euskadi
Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua
IKASLE ELEANIZTUNAK HELBURU: HIZKUNTZEN ERABILERA ETA IKASKUNTZA

1 **Propuesta de informe del presidente de la Comisión de Educación del Parlamento Vasco: "Borrador de bases para una educación del siglo XXI"**

INTRODUCCIÓN
La acción transformadora de la educación vasca
¿Por qué una ley?
VALORES, PRINCIPIOS Y FINES DEL SISTEMA EDUCATIVO VASCO
Valores
Principios
Fines
DERECHO A LA EDUCACIÓN Y A LA CONVIVENCIA POSITIVA
Convivencia y diversidad
Planificación y acceso al sistema educativo
Garantías de gratuidad
Enseñanzas obligatorias y gratuitas
NUEVOS LIDERAZGOS Y MODELOS DE GOBERNANZA
La comunidad educativa
Empoderamiento y liderazgo pedagógico de las direcciones de los centros
Gobernanza colaborativa de centros educativos
Contrato-programa
Cogobernanza educativa entre administraciones
Programas socioeducativos: corresponsabilidad de las administraciones
Consejos educativos locales
Consejo Escolar de Euskadi
Consejo de la Escuela Pública Vasca

Euskal Hezkuntza Sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa
Euskara, sistema eleaniztunaren ardatza
Hezkuntza-esparru eleaniztunaren helburuak
Objetivos del modelo marco educativo plurilingüe
Hizkuntza-proiektuak eta ikuspegi metodologikoa
Hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua. Metodologiak
Irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko prestakuntza
Prestakuntza metodologikoa hizkuntzen irakaskuntzan

IKASTEKO ETA ETENGABE HOBETZEKO PALANKAK

Hezkuntzaren eraldaketa eta hobekuntza bi ardatzetan: ekitatea eta bikaintasuna
Euskararen Ikaskuntzarako Institutua
Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa
Ikuskaritza
Eraldaketa eta inklusiorako digitalizazioa
Digitalización para la transformación e inclusión
Irakaskuntza-funtzioaren paradigma. Irakatsi eta ikasteko inguruneak eta prozesuak berriz diseinatzea
Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza
Prospekzioa
Hezkuntza-sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundea

LANKIDETZAKO PRESTAKUNTZA BERRI BATERANTZ

Hasierako prestakuntza
Etengabeko prestakuntza

JARDUKETA-PLANA

Ekitatea eta segragazioaren aurkako borroka
Ikasteko eta etengabeko hobekuntzarako palankak
Euskal Hezkuntza Sistemaren plangintza estrategikoa
Kogobernantza eta partaidetza
Beste jarduera batzuk
Hezkuntza-itunetik akordio sozialera
Finantzaketa

POR UN ALUMNADO PLURILINGÜE: USO Y APRENDIZAJE DE LAS LENGUAS

El marco plurilingüe e intercultural del Sistema Educativo Vasco
El euskera, eje vertebrador del sistema plurilingüe
Objetivos del modelo marco educativo plurilingüe
Proyectos lingüísticos y enfoque metodológico
Tratamiento integral e integrado de las lenguas. Metodologías
Formación para la mejora de la competencia lingüística del profesorado
Formación metodológica en la enseñanza de idiomas

PALANCAS PARA EL APRENDIZAJE Y LA MEJORA CONTINUA

Transformación y mejora educativa en dos ejes: equidad y excelencia
Instituto para el Aprendizaje de Euskera
Centro de Innovación para el Aprendizaje
Inspección educativa
Digitalización para la transformación e inclusión
El paradigma de la función docente. Rediseño de los entornos y procesos de enseñanza-aprendizaje
Evaluación y mejora continua del sistema educativo
Prospección
El Instituto Vasco de Evaluación, Investigación y Prospectiva del Sistema Educativo

HACIA UNA NUEVA FORMACIÓN COLABORATIVA

Formación inicial
Formación permanente

PLAN DE ACTUACIONES

Equidad y lucha contra la segregación
Palancas para el aprendizaje y la mejora continua
Planificación estratégica del Sistema Educativo Vasco
Cogobernanza y participación
Otras actuaciones
Del pacto educativo al acuerdo social
Financiación

5 Sarrera

6 Euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailea

8 Euskal hezkuntzari zorrotz begiratzeko unea da. Asko da egin dena baina asko da, era

5 Introducción

6 La acción transformadora de la educación vasca

8 Es el momento de mirar con rigor a la educación vasca. Es mucho lo que se ha hecho,

berean, egiteko daukana. Egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko beharrezkoak ditu: (i) berrikuntza-kulturaz jabetzea; (ii) hezkuntza-prozesuari aplika dakizkiokeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; (iii) ikusmiran izatea .ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, hala nola ikasleak gidatzen . eta laguntzen dituzten irakasleak eta familiak; (iv) hezkuntza formaleko eta ez formaleko eskola-antolaketa eraikitzea, euskal ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan kudeatzen duten ikastetxe ahaldunduekin; (v) gobernantza-eredu berria ezartzea, erantzunkidea, deszentralizatua eta udalerri-, lurralde- eta autonomia mailan egituratua; eta (vi) hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzea.

pero es también mucho lo que queda por hacer. La respuesta a los retos actuales y futuros exige: (i) tomar conciencia de la cultura de la innovación; (ii) considerar las aportaciones científicas aplicables al proceso educativo; (iii) visionar un alumnado empoderado como sujeto activo del aprendizaje, así como a las familias y al profesorado que guían y acompañan al alumnado; (iv) construir una organización escolar de educación formal y no formal con centros empoderados que gestionen en interacción con el entorno sociocultural e institucional vasco; (v) implantar un nuevo modelo de gobernanza, corresponsable, colaborativo, descentralizado y estructurado a nivel municipal, territorial y autonómico; y (vi) garantizar un Sistema Educativo inclusivo.

9 Ordua da, beraz, ohiko inertziak eta konfort-markoak uzteko, hezkuntzaren funtsezko arazoei aurre egiteko eta irtenbide justuak eta gizartea asebeteko duten bideak bilatzeko.

Es hora, pues, de abandonar las inercias y los marcos de confort habituales, afrontar los problemas esenciales de la educación y buscar soluciones justas y vías que satisfagan a la sociedad.

Euskal hezkuntza-ereduaren hobekuntzan sakontzeko beharra ikaslea da, pertsona gisa garapen integrala lortzen lagundu nahi duen eta gizarteari egiten dion ekarpena erraztu nahi duen sistema baten zentroa den aldetik, haren eskola-arrakasta bultzatuz.

La necesidad de profundizar en la mejora del modelo educativo vasco parte de la alumna y el alumno como centro de un sistema que pretende contribuir a su desarrollo integral como persona y facilitar su contribución a la sociedad, propiciando su éxito escolar.

10 Gizarte-ongizatea eta kohesioa ondasun immaterialen eta ekonomikoen albokoak dira. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du bi ondasun horien zaintzan. Gainera, ondasun kolektiboek eragina izan dezakete nortasunen sorreran. Gure herrialdean talde nortasun desberdinak dituzten pertsonak bizi dira, bai eta askotarikoak ere, eta hezkuntza-sistemak nortasun horiek errespetatu behar ditu, arreta berezia eskainiz euskal kulturari.

El bienestar social y la cohesión guardan relación con el patrimonio inmaterial y económico. La educación juega un papel fundamental en el cuidado de ese patrimonio. Además, el patrimonio colectivo puede influir en la creación de identidades. En nuestro país viven personas con identidades colectivas diferentes, así como diversas, a las que el sistema educativo debe respetar, prestando especial atención a la cultura vasca.

11 Ekitatea errazten duen hezkuntza humanista baten alde egiten du Euskal Hezkuntza Sistemak, alderdi formalak eta ez-formalak integratzen dituena, autoestimu pertsonala eta kolektiboa bultzatzen dituena, norberarengan eta gainerakoengan konfiantza lantzen duena, koirakaskuntza praktikatu eta garapen pertsonal, profesional eta sozialarekin konprometitua dagoen irakasleriarekin batera sistema ebaluatzen duen..

El Sistema Educativo Vasco aboga por una educación humanista que facilite la equidad, que integre los aspectos formales y no formales, que impulse la autoestima personal y colectiva, que cultive la confianza de cada persona en sí misma y en las demás, que practique la codocencia y que evalúe el sistema de manera conjunta con un profesorado comprometido con el desarrollo personal, profesional y social.

12 Era horretan, eskola-antolamendua bizikidetza-espazio bilakatzen da eta gizarte-inklusiorako gaurko eta etorkizuneko oinarrizko pieza. Horixe da euskal hezkuntzaren ekintza eraldatzailearen erronka berria.

Así, la organización escolar se transforma en espacio de convivencia y pieza básica de presente y futuro para la inclusión social. He ahí el nuevo reto de la acción transformadora de la educación vasca.

13 Zergatik lege bat?

¿Por qué una ley?

14 Euskal hezkuntza eta bere etorkizunaren gaineko barne-hausnarketa sakonean murgilduta dabiltza zenbait profesional eta hezkuntza-aditu, urtetan bildutako ezagutza, esperientzia eta konpromisoa oinarritzat hartuta. Eragile guztien engaiamendua bilduz lortuko da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema aurrerakoi, bateratzaile, berdintzaile, arrakastatsu eta kalitatezkoa.

Un buen número de profesionales y expertos educativos están llevando a cabo una profunda reflexión interna sobre la educación vasca y su futuro, a partir del conocimiento, la experiencia y el compromiso adquiridos durante años. Aglutinando el compromiso de todos los agentes se conseguirá un futuro Sistema Educativo Vasco progresista, integrador, igualitario, exitoso y de calidad.

15 Gure hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat da erreferentziazko adierazleen multzo bat duela, dela eskolatzean, dela eskola-uzte tasan, goi-mailako hezkuntza-maila nabarmenean edo egokitasunean edo eskola-uztean, erakusten digutenak hezkuntza-sistema ona dugula. Era berean, beste erronka batzuei ere erantzun behar zaie, hala nola gero eta askotarikoagoa eta zorrotzagoa den gizarte baten eskaerei, edo egungo erronka demografikoen eta aldaketa teknologikoen ondoriozkoei. Badakigu hezkuntza-hobekuntzak epe ertain eta luzera direla hautemangarriak; beraz, denbora eta egonkortasuna behar dira, eta, aldi berean, hurrengo aldaketetara egokitzeko malgutasuna eta gaitasuna

Nuestro sistema educativo se caracteriza por un conjunto de indicadores de referencia en materia de escolarización, ya sea en la tasa de abandono escolar, el nivel de educación superior notable o idóneo o el abandono escolar, que nos muestran que contamos con un buen sistema educativo. Pero es preciso dar respuesta a otros retos, tales como las demandas de una sociedad cada vez más diversa y exigente, o los derivados de los datos demográficos y de los cambios tecnológicos. Sabemos que las mejoras educativas son perceptibles a medio y largo plazo, por lo que se requiere tiempo y estabilidad, al tiempo que flexibilidad y capacidad para adaptarse a los próximos cambios.

16 Lege berri batek, Euskal Hezkuntza Sistemari beharrezko den legegintza-maila emateaz gain, gizarte-adostasun zabala bildu behar du hezkuntza-sistema hori eraikitzeko prozesuan, euskal gizartearen premien eta gaitasunen arabera modu mailakatu eta egingarrian taxutzeko. Akordio konstruktibo, sinesgarri eta itxaropentsu bat sortzeko aukeraren aurrean gaude, datozen hamarkadetan heldu beharreko hezkuntza-erronketarako bidean lagun dezakeen lege baten inguruan. Horregatik, zentzu estrategikoa aitortzen diogu.

Una nueva ley, además de dotar al Sistema Educativo Vasco del nivel legislativo necesario, debe concitar un amplio consenso social en el proceso de construcción de dicho sistema educativo, en orden a configurarlo de forma gradual y factible, de acuerdo con las necesidades y capacidades de la sociedad vasca. Estamos ante la oportunidad de crear un acuerdo constructivo, creíble y esperanzador en torno a una ley que pueda acompañar y señalar el camino hacia los retos educativos que debemos abordar en las próximas décadas. Le reconocemos, por ello, un sentido estratégico.

Euskal Hezkuntza Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten ikastetxe guztiak biltzen ditu. Ikastetxeen arteko araubide juridikoan dauden aldeak funtsezkoak dira alderdi askotan eta ez dira oztopo aniztasun horretatik gizartean betetzen duten eginkizuna aitortu behar izateko. Sistema horretako protagonismoa eskola publikoari dagokio, oinarrizko erreferentzia baita ikasle guztientzako sarbide unibertsala bermatzen duelako eta inplikatutako gizarte-sektore guztien parte-hartzea sustatzen duelako. Horregatik, nabarmentzekoa da, halaber, botere publikoek

El Sistema Educativo Vasco engloba todos los centros con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las diferencias en el régimen jurídico entre centros son fundamentales en muchos aspectos y no obstáculo para que desde esa diversidad se reconozca su papel en la sociedad. El protagonismo de este sistema recae en la escuela pública como referencia básica que garantiza el acceso universal a todo el alumnado y promueve la participación de todos los sectores sociales implicados. Por ello, también es destacable la responsabilidad y el compromiso de los poderes públicos con la escuela pública, dotándola de financiación suficiente y estable

eskola publikoarekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa, finantziaketa nahikoa eta egonkorra emanez eginkizunak kalitate- eta eraginkortasun- irizpideen arabera garatu ahal izateko. Hezkuntza-itunen bidez, Eusko Jaurlaritzak funts publikoekin sostengatuko ditu, titulartasun publikokoak izan ez arren, legeak ezarritako printzipioak eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, lege berriak ezarriko dituen konpromiso eta betebeharrak beren gain hartuta.

para que pueda desarrollar sus funciones con criterios de calidad y eficiencia. A través de los conciertos educativos, el Gobierno Vasco sostendrá con fondos públicos a los centros que, sin ostentar la titularidad pública, cumplan los principios y objetivos establecidos por la ley, asumiendo los compromisos y las obligaciones que establecerá la nueva ley.

17 Laburbilduz,

En resumen,

18 XXI. mendeko euskal hezkuntzaren aldeko lege bat behar dugu, gure herriaren bilakaera historikoari eta euskal gizartearen aukera-aberastasunari justizia egingo diona, betiere balio publikoen marko berriari eusten, zerbitzu publikoa eskaintzen dutenek eguneratuko dituzten eskubideak eta betebeharrak birpentsatu eta birformulatuta izaera publiko horri dagokion eran.

Necesitamos una ley para la educación vasca del siglo XXI que haga justicia a la evolución histórica de nuestro país y a la riqueza de oportunidades de la sociedad vasca, manteniendo siempre el nuevo marco de valores públicos, repensando y reformulando los derechos y deberes que actualizarán quienes prestan ese servicio público, tal como corresponde a su carácter público.

19 Gure herriaren errealitatean oinarrituta, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditugu, betiere hezkuntza-deszentralizazioa, toki-erakundeen protagonismo zabalagoa, familien partaidetzaren sustapena eta hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko elkarlana direlarik ortzi-muga. Lege berriak ausardiaz eta ilusioz erraztu behar du bide hori, gizarte osoaren eta erakunde guztien konplizitatea bilatuz.

Sobre la base de la realidad de nuestro país, reformularemos las relaciones entre la Administración y los centros educativos, siempre con el horizonte de la descentralización educativa, el más amplio protagonismo de las entidades locales, el fomento de la participación de las familias y la colaboración entre la educación formal y no formal. La nueva ley debe facilitar ese camino con valentía e ilusión, buscando la complicidad del conjunto de la sociedad y de todas las instituciones.

20 EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN BALIO, PRINTZIPIO ETA HELBURUAK

VALORES, PRINCIPIOS Y FINES DEL SISTEMA EDUCATIVO VASCO

21 Balioak

Valores

22 Hezkuntza da norbere nortasuna garatzen duen prozesua, bertan eraikitzen dira ingurune natural, sozial eta kulturalaren gaineko ezagutza eta ingurune horretan gizarte-harremanek ardazten dituzten balioak. Horrela, gure identitateaz, gizarte baten parte izateak eta gizarte hori eraldatuz hobetzen laguntzeak sortzen dituzten eskubideez eta betebeharrez jabetzen gara.

La educación es el proceso en virtud del cual se desarrolla la propia personalidad, y a través de ella se construye el conocimiento sobre el medio natural, social y cultural, así como los valores que las relaciones sociales focalizan en ese entorno. Así, adquirimos conciencia de nuestra identidad y de los derechos y deberes resultantes de formar parte de una sociedad y de contribuir a su mejora, transformándola.

23 Hezkuntzak prestatzen gaitu elkarrekin bizitzeko, bizi garen gizartearen parte izateko eta hura hobetzen laguntzeko. Hauxe da hezkuntza- sistemaren bigarren ardatza. Ikastetxeetan ikasten dugu elkarrizketan jarduten, gatazkak zentzuz konpontzen eta bizitza osoan erabakigarria izango dugun demokraziarako hezkuntza eraikitzen. Gizartean

La educación nos prepara para convivir, formar parte de la sociedad en la que vivimos y contribuir a su mejora. Este es el segundo eje del sistema educativo. En los centros educativos aprendemos a dialogar, a resolver los conflictos de manera racional y a construir una educación para la democracia que sea determinante a lo largo de nuestra vida. Queremos una escuela que

bizitzea ahalbidetzen duten balioak eta esperientziak transmitituko dituen eskola nahi dugu, hala nola balio zibikoak, publikoarekiko eta komunarekiko ardura, indarkerien prebentzioa –genero-indarkeria eta sexu-indarkeria barne–, emakumeen eta gizonen arteko bizikidetza sinergikoa edo naturaren zaintza. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia du euskararekin, bere kulturarekin eta haren transmisioarekin. Ikastetxea da identitate irekiak eraikitzeko espazioa, norberarena unibertsalarekin artikulatzen ikasten den heinean. Eskolan ikasten dugu gure etorkizun pertsonal eta kolektiboa eraikitzen, bertan ikasten baitugu beste identitate-esperientzia batzuk ere kontuan hartzen, pluralismoaren eta berdintasunaren balioa aurkitzen dugun espazioa baita.

Jakintza da Euskal Hezkuntza Sistemaren hirugarren ardatza. Eskola da gizakiek munduan bizitzeko duten lanabes handia, bereziki XXI. mende honetan pentsamenduari erronka handiak ezartzen baitizkio. Ez dago gizarte heldurik jakintzaren eta haren hazkunde eta hedapenaz arduratzen direnen balioa onartzen ez duenik. Ezagutza eta haren ondorioak –arrazoitutako argudiorako gaitasuna, gertakari eta ebidentzien errespetua, ziurtasun ororen mugen kontzientzia, ikas-prozesuaren beraren kontzientzia hartzea– dira gizakiari bere garapenean lagundu dioten balioak.

Gure ikasgeletatik aterako diren belaunaldi berriek aurkikuntza zoragarriak egin ahal izango dituzte jakintzaren abenturaren eskutik. Eta gizartearen eraldaketarako protagonista horiek, inolako asmo elitistarik gabe lortu ahal izango dute euskal gizarteak barneratu ditzan kultura zientifiko zabala, teknologiarekiko estimua eta bere inplikazio etiko, sozial eta ingurumenarekin loturikoei buruz gogoeta egiteko gaitasun kolektiboa.

Ikasleak erdigunean dituen Euskal Hezkuntza Sistemaren ortzi-mugak zazpi ezaugarri ditu:

- Pertsona ona, (i) Ongizate fisikoa, emozionala eta mentala. (ii) Autonomia, gorputz-autonomia, autorregulazioa, autoestimua, erresilientzia, erantzukizuna, autozaintza eta elkarren zaintza. (iii) bidezkoa, solidarioa eta berdintasunarekin eta iraunkortasunarekin konprometituta.

transmita valores y experiencias que permitan vivir en sociedad, como valores cívicos, responsabilidad con lo público y lo común, prevención de las violencias –incluidas la violencia de género y violencia sexual–, convivencia sinérgica entre mujeres y hombres o cuidado de la naturaleza. El Sistema Educativo Vasco está especialmente comprometido con el euskera, su cultura y su transmisión. El centro educativo es el espacio para construir identidades abiertas, a medida que se aprende a articular lo propio con lo universal. En la escuela aprendemos a construir nuestro futuro personal y colectivo, donde también aprendemos a tener en cuenta otras experiencias identitarias, ya que es un espacio en el que encontramos el valor del pluralismo y la igualdad.

24 El conocimiento es el tercer eje del Sistema Educativo Vasco. La escuela es la gran herramienta de que dispone el ser humano para habitar el mundo, muy especialmente en este siglo XXI, que plantea enormes desafíos al pensamiento. No hay sociedad madura donde no sea reconocido el valor del saber y de quienes se ocupan de su crecimiento y difusión. El conocimiento y sus corolarios –la capacidad de argumentación razonada, el respeto a los hechos y las evidencias, la conciencia de los límites de toda certeza, la toma de conciencia del propio proceso de aprendizaje– son los valores que han ayudado al ser humano en su desarrollo.

25 Las nuevas generaciones que saldrán de nuestras aulas podrán realizar maravillosos descubrimientos de la mano del conocimiento. Y, en tanto que protagonistas de la transformación social, se verán en condiciones de lograr, sin propósito elitista alguno, que la sociedad vasca adquiera una amplia cultura científica, aprecio por la tecnología y capacidad colectiva de reflexionar sobre sus implicaciones éticas, sociales y medioambientales.

26 El horizonte de un Sistema Educativo Vasco centrado en el alumnado muestra siete características:

27
- Buena persona. (I) Bienestar físico, emocional y mental. (II) Autonomía, autonomía corporal, autorregulación, autoestima, resiliencia, responsabilidad, autocuidado y cuidado mutuo. (III) Persona justa, solidaria y comprometida con la igualdad y la sostenibilidad.

28

- Herritar ona. (i) Komunitateko kide izatearen sentimendua, gizarte-konpromisoa, parte-hartzea, esparru publikoan jarduteko gaitasuna (hitz egitea, entzutea, argudiatzea, zer esan eta esaten jakitea). (ii) Adimen kolektiboa, herritartasun kritikoa...

- Buen/a ciudadano/a. (i) Sentimiento de pertenencia a la comunidad, compromiso social, participación, capacidad de actuar en el ámbito público (hablar, escuchar, argumentar, saber qué decir y cómo decirlo). (ii) Inteligencia colectiva, ciudadanía crítica…

29

- Profesional ona. (i) Jakin-mina, sormena eta autoerregulazioa. (ii) ikasten ikastea, orain ezagutzen ez diren lanbide berriei aurre egiteko.

- Buen/a profesional. (i) Curiosidad, creatividad y autorregulación. (ii) Aprender a aprender para desempeñar nuevas profesiones aún desconocidas.

29 bis

- Hezkidetza da Euskal Hezkuntza Sistemaren laugarren ardatza. Ikasle orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, genero-estereotiporik gabeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eta sexu-genero sistemaz hausnarketa kritikoa egiteko eskubidea. Horren baitan, zeharkakotasunez landuko dira hezkuntza afektiboa eta sexuala. Hori horrela, Euskal Hezkuntza Sistemako ikastetxeek hezkidetza-plan bat izango dute.

- Parekidetasuna, aniztasuna eta askatasuna ikastetxe osoarentzako printzipioak izango dira, eta esplizituki tratatuko dira curriculumean zein zeharkakotasunez.

- Horretaz gain, Euskal Hezkuntza Sistemak bermatuko du ikasle orok krisi ekologikoaren testuinguru historikoan bizitzaren iraunkortasunaren alde ekiteko gaitasunak eskuratzea. Gaurko eta biharko belaunaldien ongizatean eragin bortitza izango duen agertoki historiko hain arriskutsu hau kudeatuko duten pertsona kritiko eta gaituak hezteko betebeharra du euskal hezkuntzak XXI. mende honetan, 2030 agendaren norabidean.

- Euskal Hezkuntza Sistema laikoa da.

- La coeducación es el cuarto eje del Sistema Educativo Vasco. Todo alumno y alumna tiene derecho a una educación coeducativa basada en una didáctica sin estereotipos de género y a una reflexión crítica sobre el sistema sexo-género. En este marco, se trabajará de forma transversal la educación afectiva y sexual. Así, los centros del Sistema Educativo Vasco contarán con un plan de coeducación.

- La paridad, la diversidad y la libertad serán principios para todo el centro, y serán tratados de forma explícita tanto en el currículo como de forma transversal.

- Además, el Sistema Educativo Vasco garantizará que todo el alumnado adquiera las capacidades para emprender por la sostenibilidad de la vida en el contexto histórico de crisis ecológica. La educación vasca tiene en este siglo XXI la obligación de educar a las personas críticas y capacitadas que gestionen este escenario histórico tan peligroso que tendrá un impacto brutal en el bienestar de las generaciones de hoy y de mañana, en la dirección de la agenda 2030.

- El Sistema Educativo Vasco es laico.

30

Printzipioak

Principios

30 bis

Euskal Hezkuntza Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten ikastetxe guztiak biltzen ditu. Ikastetxeen arteko araubide juridikoan dauden aldeak funtsezkoak dira alderdi askotan, baina ez dira oztopo aniztasun horretatik gizartean betetzen duten eginkizuna aitortu behar izateko. Sistema horretako protagonismoa euskal eskola publikoari dagokio, oinarrizko erreferentzia baita ikasle guztientzako sarbide unibertsala bermatzen

El Sistema Educativo Vasco integra todos los centros con sede en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las diferencias de régimen jurídico entre los centros, sustanciales en muchos aspectos, no constituyen obstáculo para que deba reconocerse el papel social que desempeñan desde su diversidad. El protagonismo en dicho sistema corresponde a la escuela pública vasca, referente básico que garantiza el acceso universal a todo el alumnado

duelako eta inplikatutako gizarte-sektore guztien parte-hartzea sustatzen duelako. Horregatik, nabarmentzekoa da, halaber, botere publikoarekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa, finantzaketa nahikoa eta egonkorra emanez, eginkizunak kalitate- eta eraginkortasun-irizpideen arabera garatu ahal izateko. Hezkuntza-itunen bidez, Eusko Jaurlaritzak funts publikoekin sostengatuko ditu, titulartasun publikokoak ez izan arren, legeak ezarritako printzipio eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, legeak ezartzen dizkien konpromiso eta betebeharrak beren gain hartuta.

y promueve la participación de todos los sectores sociales implicados. Por ello, cabe asimismo destacar la responsabilidad y el compromiso que para con ella tienen los poderes públicos, dotándole de una financiación suficiente y estable que permita desarrollar sus funciones bajo criterios de calidad y eficacia. Bajo la forma de conciertos educativos, el Gobierno Vasco sostendrá también con fondos públicos aquellos centros que, no siendo de titularidad pública, cumplan con los principios y objetivos establecidos por la ley, asumiendo los compromisos y obligaciones que esta les impone.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasle guztiak kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza izatearen alde eginez, bizikidetza positiboa, aukera- berdintasuna, aniztasunarekiko eta sinesmen-askatasunarekiko errespetua zainduko ditu, indarkeriak eta bereizkeriak prebenituz, printzipio horiek guztiak ikasle bakoitzarengandik hezkuntza- komunitatera hedatuz joan daitezen.

31 El Sistema Educativo Vasco, en su apuesta por una educación de calidad y excelencia para la totalidad del alumnado, velará por la convivencia positiva, la igualdad de oportunidades y el respeto a la pluralidad y a la libertad de creencias, previniendo las violencias y discriminaciones, de forma que tales valores se difundan desde cada alumno y alumna al conjunto de la comunidad educativa.

Eredu honen garapenak giltzarri bat du: hezkuntza-erakundeen autonomia. Eta horrek esan nahi du, hezkuntza-proiektuek behar duten lidergo pedagogikoaren autonomia eta hezkuntza-proiektua kudeatu eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko autonomia.

32 El desarrollo de este modelo tiene una clave: la autonomía de las instituciones educativas. Ello conlleva la autonomía del liderazgo pedagógico que requieren los proyectos educativos y autonomía para gestionar el proyecto educativo y posibilitar la participación democrática de la comunidad educativa.

Helburuak

33 Fines

Hezkuntzaren helburu nagusia da hezkuntza-eskubidea egiazki gauzatzen dela bermatzea; askotariko ikasleen garapen integrala eta ikaskuntza malgua bultzatuz, zeregin hori balioetan eta bizikidetza positiboan finkatuz, eta kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza-aukerak bermatuz.

34 El objetivo principal de la educación es garantizar el ejercicio efectivo del derecho a la educación, impulsando el desarrollo integral y el aprendizaje flexible del alumnado diverso, consolidando esta tarea en valores y convivencia positiva, y garantizando oportunidades educativas de calidad y excelencia.

Hezkuntzak beharrezko diren ezagutzak eskaini behar dizkie ikasleei irizpide propioa eskuratzen laguntzeko, eta, horrela, ondo oinarritutako erabaki libreak hartzeko. Eta ezagutza sistematizatuaren iturri nagusia denez gero, oinarrizko tresna izan behar du ikusmira kritikoa duten eta herritartasuna erabat gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak garatzeko; horrexek bihurtzen du ezinbestekoa demokratikoa den gizarte baterako. Jasotako informazioak 36errealitatearekin kontrastatuz eta apaltasun epistemikoz jokatuz lantzen da ikusmira kritikoa, berdinak diren pertsonaz osaturik dagoen gizarte batean inork ez baitu azken hitza.

35 La educación debe ofrecer al alumnado los conocimientos necesarios para ayudarle a adquirir un criterio propio y así tomar decisiones libres bien fundadas. Y, en tanto que fuente principal de conocimiento sistematizado, debe constituir un instrumento básico para el desarrollo de personas con visión crítica y capacidad de ejercer plenamente la ciudadanía, lo que hace de ella un elemento imprescindible para una sociedad democrática. La visión crítica se adquiere contrastando las informaciones recibidas con la realidad y actuando con humildad epistémica en una sociedad compuesta por personas iguales, ya que nadie tiene la última palabra.

Hezkuntzak gaitasun nahikoak eman behar ditu lanbide batean jarduteko eta bizi-proiektu autonomo bat garatu ahal izateko. Ikuspegi kolektibotik begiratuta, gizartearen funtzionamendu egokirako eta etorkizunean beharko diren baliabideak emateko gai izango den garapen ekonomiko sendorako giltzarria da prestakuntza, gero eta garrantzi handiagoa baitu gure gizartean pertsona kualifikatu gehiago eta kualifikatuagoak izatea.

36 La educación debe proporcionar competencias suficientes para ejercer una profesión y desarrollar un proyecto de vida autónomo. Desde el punto de vista colectivo, la formación es clave para el buen funcionamiento de la sociedad y para un desarrollo económico sólido, capaz de proporcionar los recursos necesarios en el futuro, de ahí la importancia creciente de que nuestra sociedad cuente con un número cada vez mayor de personas cualificadas.

Euskal Hezkuntza Sistemak konpromisoa hartuko du, lege berriaren bidez, subjektu aktibo gisa ahaldundutako ikasleak hezteko, komunitatean ikasten duten ikasleak, giza erronkei eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-erronkei erantzuna emanez, eginkizun horretan erantzukizuna partekatzen duten familia eta irakasleekin batera.

37 El Sistema Educativo Vasco se comprometerá, mediante la nueva ley, a formar a un alumnado empoderado como sujeto activo de su aprendizaje, un alumnado que aprenda en comunidad, dando respuestas a los retos humanos, sociales, culturales y medioambientales, y con el acompañamiento de unas familias y un profesorado corresponsables en el empeño.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasleen sarbidea eta onarpena bermatzeko mekanismoak ziurtatuko ditu, mekanismo horiek baitira eskolatze inklusibo eta orekatua lortzeko euskarriak.

38 El Sistema Educativo Vasco garantizará el desarrollo de mecanismos de garantía en el acceso y la admisión del alumnado, en tanto que instrumentos para la consecución de una escolarización inclusiva y equilibrada.

Euskal Hezkuntza Sistemak irakasle kualifikatu eta ahaldunduak izango ditu, eta prestigioa emango die irakasle-lanari eta haien aintzatespen sozialari, ikasteko modu berriak dituzten ikasleei erantzun eraginkorrak emate aldera. Eta ebaluazioaren kultura sendotuko du. Era berean, sormena, talentua, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea eta kooperatiboa sustatuko dituen kultura zientifikoa eta humanitateak jasoko dituen hezkuntza-eredua lehenetsiko du.

39 El Sistema Educativo Vasco se dotará de un profesorado cualificado y empoderado, prestigiando la labor docente y su reconocimiento social, a fin de dar respuestas efectivas a un alumnado con nuevas formas de aprender. Y reforzará la cultura de la evaluación. Del mismo modo, priorizará un sistema educativo que incorpore la cultura científica y las humanidades, a fin de fomentar la creatividad, el talento, la iniciativa personal y el espíritu emprendedor y cooperativo.

HEZKUNTZARAKO ETA BIZIKIDETZA POSITIBORAKO ESKUBIDEA

40 DERECHO A LA EDUCACIÓN Y A LA CONVIVENCIA POSITIVA

Oinarrizko giza eskubidea da hezkuntza eta berariaz aitortuta dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948) zein nazioarteko beste arau-tresna askotan. 2030erako Munduko Hezkuntza Agendaren printzipio gidarietako bat da hezkuntzarako eskubidea, bai eta nazioarteko komunitateak onartutako 4. Garapen Iraunkorraren Helburua (4. GIH) ere, giza eskubideak oinarri hartuta, hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzeko eta guztiontzat bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzeko helburuz formulatzen dena.

41 La educación es un derecho humano fundamental, y está expresamente reconocido en la Declaración Universal de Derechos Humanos (1948), al igual que en muchos otros instrumentos internacionales. El derecho a la educación es uno de los principios rectores que respalda la Agenda Mundial Educación 2030, al tiempo que constituye el Objetivo de Desarrollo Sostenible 4 (ODS 4), adoptado por la comunidad internacional y basado en los derechos humanos, formulado con propósito de garantizar una educación inclusiva, equitativa y de calidad y de fomentar oportunidades de aprendizaje a lo largo de la vida para el conjunto de la población.

42 Euskal Hezkuntza Sistemak aukera-berdintasuna eta sarbide unibertsala bermatuko ditu, eta kalitatezko hezkuntza jasangarria lortzeko oinarriak ezarriko ditu. Eusko Jaurlaritzari dagokio guztientzako hezkuntza arrakastatsua ahalbidetzeko neurri politiko zein juridikoak betearaztea, baita ere sistemaren politika eta estrategien aplikazio eta jarraipen eraginkorrenak gauzatzea.

El Sistema Educativo Vasco garantizará la igualdad de oportunidades y el acceso universal, y establecerá las bases para una educación sostenible y de calidad. Corresponde al Gobierno Vasco ejecutar las medidas políticas y jurídicas que posibiliten una educación exitosa para todos y todas, así como la aplicación y el seguimiento más eficaces de las políticas y estrategias del sistema.

43 Bizikidetza eta aniztasuna

Convivencia y diversidad

44 Bizikidetza da etorkizuneko edozein proiektu jasangarriren ardatza. Hiru bizikidetza-maila ditugu: Gizarte plural eta askotariko bateko bizikidetza; hezkuntza-sareen arteko bizikidetza eta eskolako bizikidetza.

La convivencia es el eje de cualquier proyecto sostenible de futuro. Distinguimos tres niveles de convivencia: la convivencia en una sociedad plural y diversa, la convivencia entre redes educativas y la convivencia escolar.

45 Euskal komunitateak eskola inklusiboaren alde egin duen apustuaren ondorioz, baliabide berariazkoak garatu dira. Esaterako, Europan eskola goiz uzten dutenen tasa txikienetako bat du Euskadik (% 6,5), eta goi-mailako hezkuntza duten ikasleen tasa handienetako bat (% 59,6). Era berean, eskolatze goiztiarreko tasarik altuena duen autonomia-erkidegoetako bat da: haurren % 92,3 bi urteko geletan eskolatuta daude, eta % 99 hiru urteko geletan.

Como consecuencia de la apuesta de la comunidad educativa vasca por una escuela inclusiva, se han desarrollado recursos específicos. Así, Euskadi cuenta con una de las tasas más bajas de abandono escolar temprano de Europa (6,5 %), y una de las más altas tasas de alumnado con educación superior (59,6 %). Al mismo tiempo, es una de las comunidades autónomas con una tasa de escolarización temprana más alta: el 92,3 % de los niños y niñas están escolarizados en aulas para dos años de edad, y el 99 % para tres años.

46 Halere, gai honi ez zaio beti heldu beharrezkoa duen ikuspegi transbertsalez eta integralez. Arazo konplexu bat da, eskolak soilik ezin gainditu dezakeena, baina badira hezkuntza alorrean hobetu beharrekoak: ikasle etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak, ikasteko zailtasunekin lotutako premiak dituztenak, gaitasun handikoak eta genero- edo sexu-bazterkeria arriskuan bizi direnak, besteak beste.

Sin embargo, no siempre se ha abordado esta cuestión desde el necesario punto de vista transversal e integral. Se trata de un problema complejo, que la escuela no puede superar por sí sola, pero en el ámbito educativo hay aspectos que mejorar: alumnado inmigrante, de minorías étnicas, con necesidades vinculadas a dificultades de aprendizaje, con altas capacidades y en riesgo de exclusión de género o de sexo, entre otras características

47 Inklusioaren ikuspegi horretatik, Euskal Hezkuntza Sistemak ekitatea berresten du, eskolatze zabalaren eta baldintza-berdintasunaren bidez, bai eta jatorrizko desparekotasunak konpentsatzeko eta eskola-uzte goiztiarraren arriskua minimizatzeko neurriak hartzea ere.

Desde esta visión de inclusión, el Sistema Educativo Vasco se reafirma en la equidad mediante una escolarización amplia y en igualdad de condiciones, así en la adopción de medidas que compensen las desigualdades de origen y minimicen el riesgo de fracaso y abandono escolar temprano.

48 Egungo eskolatze-eredua eraldatu eta ikasle kalteberen kontzentrazioak ekiditeko ezinbestekoa da barruti/eremu bakoitzean hezkuntza-proiektu integralak garatzea. Ildo horretan ezinbestekoak dira (i) eskola-mapa aztertu eta egokitzea, ekitateari eta errendimenduari erreparatuz; (ii) familien kontsulta- eta partaidetza-ereduak eraginkortzea (tokiko hezkuntza-kontseiluak tresna baliagarria izan daitezke), eta (iii)

A fin de transformar el actual modelo de escolarización y evitar concentraciones de alumnado vulnerable, es imprescindible desarrollar proyectos educativos integrales en cada distrito/zona. En ese sentido, son imprescindibles (i) el análisis y la adecuación del mapa escolar en términos de equidad y rendimiento, (ii) la eficiencia de los modelos de consulta y participación de las familias (los consejos educativos locales pueden ser una

ikastetxeetako ikasleen arteko desorekak gainditzea, hezkuntza-kalitatea bideratzeko.

herramienta útil), y (iii) la superación de las desigualdades entre el alumnado de los centros educativos en orden a procurar la calidad educativa.

49 Egungo euskal gizartea justizia eta kohesio sozialarekiko sentibera da oro har, euskara eta euskal kultura mundu globalean birkokatzeko beharra onartzen duena, berdintasuna eta elkarbizitzarako eredu partekatua bilatzen duena, eta prestakuntza-eskaera berriek planteatzen dituzten hezkuntza-erronkez jabetua dena.

La sociedad vasca actual es, en general, sensible a la justicia y la cohesión social, reconoce la necesidad de reposicionar el euskera y la cultura vasca en un mundo global, busca la igualdad y un modelo compartido de convivencia y es consciente de los retos educativos que plantean las nuevas demandas formativas.

50 Euskal Hezkuntza Sistemak sentiberatasun horiekin koherenteak diren egokitzapenak egiteko ardura bere gain hartuko du. Besteak beste, ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen onarpena arautuko da, hezkuntzarako eta sarbiderako eskubidea berdintasun-baldintzetan bermatzeko. Erregulazio horretan, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik bereiztea saihesteko beharrezko diren neurriak ezarriko dira.

El Sistema Educativo Vasco asumirá la responsabilidad de realizar adaptaciones coherentes con esa sensibilidad social positiva. Entre otras, se regulará la admisión de alumnos y alumnas de centros públicos y privados concertados, de tal forma que garantice el derecho a la educación y el acceso en condiciones de igualdad. En dicha regulación se dispondrán las medidas necesarias para evitar la segregación del alumnado por motivos socioeconómicos o de otra naturaleza.

51 Eskola publikoek bermatzen dute ikasle guztiek hezkuntzarako eta prestakuntza integralerako eskubidea izango dutela, bereizketarik egin gabe, kalitate- eta berrikuntza-irizpideekin eta familien eta ikasleen parte-hartzearekin. Titulartasun pribatuko ikastetxeek itun-araubideari heldu ahal izango diote, legeak planteatzen dituen baldintzetan, eta hezkuntza- administrazioarekin lankidetza estua eta egiaztatua izan beharko dute (ISEC eta EKA... adierazleen bidez), ekitatea hobetzeko eta bikaintasuna bilatzeko planetan.

Los centros educativos públicos vascos garantizan el ejercicio efectivo del derecho a la educación y la formación integral de todo el alumnado sin distinción, con criterios de calidad e innovación y participación de las familias y estudiantes. Los centros de titularidad privada podrán acogerse al régimen de concierto en las condiciones que plantee la ley y deberán colaborar estrechamente y de forma contrastada (mediante indicadores ISEC y ICE...) con la Administración educativa en sus, planes de mejora de la equidad y búsqueda de la excelencia.

52 Euskara ardatz izango duen esparru eleaniztun orokortu baten aldeko apustua egiten dugu. Bi hizkuntza ofizialen eta atzerriko hizkuntza baten ezagutza bermatuko duen eredu inklusibo orokortua defendatzen dugu, betiere ikasleen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak aintzat hartuko dituena.

Apostamos por un marco plurilingüe generalizado que tenga como eje el euskera. Defendemos un modelo inclusivo generalizado, que garantice el conocimiento de las dos lenguas oficiales y de una lengua extranjera, teniendo siempre en cuenta las lenguas y culturas de origen del alumnado.

58 Plangintza eta hezkuntza-sistemarako sarbidea

Planificación y acceso al sistema educativo

59 Eusko Jaurlaritzak, pertsona guztiek hezkuntza berdintasunez jasotzeko duten eskubidea bermatze aldera, ikasleak onartzeko prozedura bakarra arautuko du, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan, baldin eta irakaskuntza hauetakoren bat ematen badute:

El Gobierno Vasco, con la finalidad de garantizar el derecho de todas las personas a acceder a la educación en condiciones de igualdad, regulará un procedimiento único de admisión del alumnado en los centros públicos dependientes del departamento de educación y en los centros concertados de la Comunidad

- Haur Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Batxilergoa.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa.
- Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Araubide bereziko irakaskuntzak (arte-irakaskuntzak, hizkuntzak, kirol-irakaskuntzak).

68 bis Euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa ikastetxe publiko eta itunpekoak medio emango da. Bete beharreko baldintzak:

- Curriculuma eta ebaluazioa. Lege berriak arlo hauetan definituko dituen irizpideak errespetatuko dituzte. Eusko Jaurlaritzak ikastetxeen hizkuntza- eta hezkuntza-proiektuak ebaluatzeko mekanismoak ezarriko ditu, eta ikastetxeek parte hartuko dute beharrezkoa denean.

- Hizkuntza. Lege berriak definituko dituen helburuak erdietsiko dituzte beren ingurune soziolinguistikoak eskatzen duen neurrian. Hortaz, euskararen presentzia urriko ingurune soziolinguistikoetan ari diren ikastetxeei Hezkuntza Sailak berariazko baliabideak eskainiko dizkie beren hezkuntza-proiektuak garatu ditzaten. Ikastetxeek autoebaluaziorako tresnak izango dituzte. Euskara lehenetsi egingo da hezkuntza-sistemaren barruan, hezkuntza-jardueran zein harreman profesionaletan, baita ere ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan.

- Parekidetasuna. Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeetan ez da sexu-segregaziorik onartuko, eta ikastetxeek sexu- zein genero-askatasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dute.

- Laikotasuna. Euskal Hezkuntza Sistema laikoa da. Lege organikoak ezarritako gutxienekoa izango da ikastetxeek Erlijio ikasgaiari eskaini dieazioketen

Autónoma del País vasco, que impartan algunas de las siguientes enseñanzas:

- Educación Infantil.
- Educación Primaria.
- Educación Secundaria Obligatoria.
- Bachillerato.
- Formación Profesional de grado básico.
- Formación Profesional de grado medio.
- Formación Profesional de grado superior.
- Enseñanzas de régimen especial (enseñanzas artísticas, idiomas, deportivas).

La prestación del servicio público vasco de educación se realizará a través de los centros públicos y concertados. Requisitos de los centros:

- Currículo y evaluación. Respetarán los criterios que definirá la nueva ley en estas materias. El Gobierno Vasco establecerá mecanismos de evaluación de los proyectos lingüísticos y educativos de los centros, y estos participarán cuando sea necesario.

- El lenguaje. Alcanzarán los objetivos que definirá la nueva ley en la medida que lo exija su entorno sociolingüístico. Por lo tanto, el Departamento de Educación facilitará recursos específicos a los centros que trabajan en entornos sociolingüísticos con escasa presencia del euskera para el desarrollo de sus proyectos educativos. Los centros dispondrán de herramientas de autoevaluación. Se priorizará el euskera dentro del sistema educativo, tanto en la actividad educativa como en las relaciones profesionales, así como en las relaciones formales e informales entre el alumnado y el profesorado.

- Paridad. En los centros educativos del Servicio Vasco de Educación no se permitirá la segregación sexual, y los centros se comprometerán a garantizar la libertad sexual y de género.

- La laicidad. El Sistema Educativo Vasco es laico. El mínimo establecido por la ley

gehienekoa eta doktrinamendurik ez dela izango bermatuko dute.

- Ikastetxeen gobernantza. Ikastetxeok hezkuntza-proiektuaren gidaritza demokratikoa bermatuko dute, hartarako hezkuntza-komunitatearen partaidetza demokratikoa ahalbidetuz.

- Hezkuntza-proiektu komunitarioak eta hezkuntza-eskaintzaren planifikazioa. Tokian tokiko hezkuntza-proiektuetan parte hartuko dute. Halaber, eskolaratze-eskaintzaren planifikazioa egiteko tokiko organo arautuetan parte hartuko dute.

- Segregazioaren kontrako konpromisoa: inklusioaren, ekitatearen eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa hartuko dute, eta hala jasoko da ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan. Hala, gerta daitezkeen segregazio-egoerei aurre egiteko, hezkuntza-administrazioak zein tokiko hezkuntza-kontseiluek zehaztutako neurriekin bat egingo dute.

- Kontratazioa. Administrazioaren jabetzakoak ez diren Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek langileen kontratazio prozesu garden eta demokratikoak garatuko dituzte eta horretarako bermeak ezarriko ditu hezkuntza-administrazioak.

- Ikastetxeetako azpiegiturak. Ikastetxeen azpiegiturak dagokion titularrarenak dira. Horretaz gain, tokiko hezkuntza-kontseiluek adostutako bestelako erabilerak izan ahalko dituzte.

- Irabazi-asmorik eza. Irizpide horiek modu progresiboan betetzeko konpromisoak hartzen dituzten ikastetxeek finantzaketa publikoa jasoko dute, eta, ondorioz, Euskal Hezkuntza Zerbitzuko partaide izango dira.

69

Hezkuntza Sailak aldian-aldian zehaztuko du eskola-plazen eskaintza, kontuan hartuta ikastetxe guztien eskaintza, bai eta aurrekontu-baliabideak ere.

orgánica será el máximo que los centros puedan ofrecer a la asignatura de Religión y garantizarán que no haya adoctrinamiento.

- Gobernanza de los centros que garanticen el liderazgo democrático del proyecto educativo, posibilitando la participación democrática de la comunidad educativa.

- Proyectos educativos comunitarios y planificación de la oferta educativa. Participarán en proyectos educativos locales. Asimismo, participarán en los órganos locales regulados para la planificación de la oferta escolar.

- Compromiso contra la segregación: se comprometen con la inclusión, la equidad y la igualdad de oportunidades, y así se recogerá en el proyecto educativo de cada centro. Así, se sumarán a las medidas definidas tanto por la Administración educativa como por los consejos locales de educación, para hacer frente a posibles situaciones de segregación.

- Contratación. Los centros docentes del Servicio Vasco de Educación que no sean propiedad de la Administración desarrollarán procesos transparentes y democráticos de contratación de personal, y la Administración educativa establecerá garantías para ello.

- Infraestructuras de los centros. Las infraestructuras de los centros pertenecen al titular correspondiente. Además, los consejos educativos locales podrán tener otros usos acordados.

- La falta de ánimo de lucro. Los centros que se comprometan al cumplimiento progresivo de estos criterios recibirán financiación pública y, en consecuencia, formarán parte del Servicio Vasco de Educación.

El Departamento de Educación determinará periódicamente la oferta de plazas escolares, teniendo en cuenta la oferta de la totalidad de los centros, así como las disponibilidades presupuestarias.

70 Doakotasunaren bermeak

Garantías de gratuidad

71 Arrakasta profesionalaren eta eraginkortasun ekonomikoaren baldintzatzaile da hezkuntzaren kalitatea. Aukera-berdintasunetik hurbilen dagoen elementua da pertsona guztiei kalitatezko prestakuntza eskaintzea. Biztanleria osoaren ongizate-maila haren prestakuntza-sistemak funtzio hori ongi betetzean datza. Herri mailako planifikazioa, eskolaratze-prozedura bateratuak eta finantziazio publikoa jasotzen duten titulartasun ezberdineko ikastetxeetako ikasleen matrikulazioaren eta eskolaratzearen planifikazioa tresna egokiak izan daitezke helburuok lortzeko. Doakotasun erreala bermatuko du Eusko Jaurlaritzak, eskolaratze-kuotak desagerraraziz.

La calidad de la educación condiciona el éxito profesional y la eficiencia económica. Ofrecer una formación de calidad a todas las personas es un elemento estrechamente vinculado a la igualdad de oportunidades. El grado de bienestar del conjunto de la población radica en el buen desempeño de esa función por parte de su sistema de formación. La planificación local, los procedimientos integrados de escolarización y la planificación de la matriculación y escolarización del alumnado de centros de distinta titularidad con financiación pública pueden ser instrumentos adecuados para alcanzar estos objetivos. El Gobierno Vasco garantizará la gratuidad real, eliminando las cuotas de escolarización.

72 Euskal Hezkuntza Sistemaren mugarria bikoitza da: ekitatea eta bikaintasuna bilatzen ditu. Ikuspegi horretatik pertsona guztiei prestakuntza-maila egokiak eskaintzea da eginkizunetako bat, eta bestea garapen intelektual handiagoa gara lezaketen ikasleei aukera guztiak eskaintzea, biak baitira ekitatearen alderdi biak

El Sistema Educativo Vasco se propone fijar un doble hito: persigue la equidad y la excelencia. Desde este punto de vista, una de las funciones a cubrir consiste en ofrecer niveles de formación adecuados a todas las personas, y otra, en ofrecer todas las posibilidades al alumnado que podría desarrollar un mayor desarrollo intelectual, puesto que ambas funciones son facetas propias de la equidad.

73 Eskolako jarduera osagarriak eta zerbitzuak ere arautu egin behar dira, irabazi-asmorik gabekoak direla bermatuz araubide organikoan ezarritako baldintzetan eta ikasleen parte-hartzea borondatezkoa dela bermatuz. Era berean, laguntzen ezarpena arautuko du, egoera sozial edo ekonomiko ahuletan daudenek jarduera eta zerbitzu horiek eskura ditzaten.

Las actividades complementarias y los servicios escolares deben ser también regulados, garantizando su carácter no lucrativo en los términos establecidos en la regulación orgánica y la voluntariedad de la participación del alumnado. Asimismo, se regulará el establecimiento de ayudas para que quienes padezcan en situaciones sociales o económicas desfavorecidas puedan acceder a dichas actividades y servicios.

74 Derrigorrezko eta doako irakaskuntzak

Enseñanzas obligatorias y gratuitas

75 Eskolatzea derrigorrezkoa da 6 eta 16 urte bitartean, eta doakoa, gutxienez, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera (3 urte). Oinarrizko Lanbide Heziketa ere doakoa izango da. Hezkuntza-administrazioak ziurtatu behar ditu derrigorrezko irakaskuntzen eta doakotzat jotako irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko baliabide publikoak.

La escolarización es obligatoria entre los 6 y 16 años de edad, y gratuita, al menos a partir del segundo ciclo de Educación Infantil (3 años). La Formación Profesional de grado básico tendrá carácter gratuito. La Administración educativa debe asegurar los recursos públicos para hacer efectiva la gratuidad de las enseñanzas obligatorias y de las declaradas gratuitas.

76 Finantziazio publikoa jasotzen duten ikastetxeek bete beharreko irizpideak zehaztu eta haien inguruko jarraipena egingo du Eusko Jaurlaritzak, eta hezkuntza-zerbitzua ematen dutenen betebeharrak eta onarpen-prozedura arautuko ditu. Ikastetxe publikoen kasuan, Administrazioak zuzenean eta ezarritako esparruan hala nahi duten titulartasun

El Gobierno Vasco determinará y realizará el seguimiento de los criterios a cumplir por los centros que reciban financiación pública, y regulará las obligaciones y el procedimiento de admisión de los prestadores del servicio educativo. Las necesidades educativas básicas de los centros se cubrirán en el caso de los centros educativos públicos directamente por la

pribatuko ikastetxeetako itun-sistemaren bidez beteko dira ikastetxeen oinarrizko hezkuntza-premiak. Ikasleen premiak % 100ean finantzatuko dira, eta, ekitate-irizpideen arabera, beken eta laguntza publikoen politika baten bidez, gizarte-baldintza zailenetan daudenei laguntza handiagoa emateko.

Administración, y mediante el sistema de conciertos en los centros educativos de titularidad privada que lo deseen en el marco establecido. Las necesidades del alumnado se financiarán al 100 % y, según criterios de equidad, mediante una política de becas y ayudas públicas, que procurará una mayor ayuda a quienes se hallen en condiciones sociales más difíciles.

Funtsezko etapa da Haur Hezkuntza haurren garapen psikomotorrerako, beren sozializaziorako eta euskara barneratzeko, besteak beste. Hori dela eta, ikas-etapa honi, aitortza berezia egiten diogu, haurren garapenean eta autonomian duen balioagatik. Hori horrela, ikas-etapa hau derrigorrezkoa ez bada ere, eskaintza unibertsalekoa, kalitatezkoa, bideragarria eta doakoa izango da. Horretarako, Haurreskolak Partzuergoa berrindartuko da, eskaintza unibertsaleko, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko bilakatu dadin.

76 bis

La Educación Infantil es una etapa clave para el desarrollo psicomotor de los niños y niñas, su socialización y la interiorización del euskera, entre otros aspectos. Por ello, hacemos un reconocimiento especial a esta etapa de aprendizaje, por su valor en el desarrollo y autonomía de los niños y niñas. Así, aunque esta etapa no sea obligatoria, tendrá una oferta universal, de calidad, viable y gratuita. Para ello, se reforzará el Consorcio Haurreskolak, para convertirlo en un servicio público de oferta universal, de calidad y gratuito.

Arreta goiztiarra bertan txertatuko da, eta horrela, premia bereziak dituzten ikasleen beharrak modurik egokienean asetzeko neurriak hartuko dira.

La atención temprana se integrará en ella, adoptando las medidas necesarias para satisfacer, de la forma más adecuada, las necesidades del alumnado con necesidades especiales.

Hezkuntza-administrazioak bere ohiko planifikazio beharrei erantzunez garatuko du ikastetxeen publifikazioa ahalbidetu dezaken araubidea.

76 bis bis

La Administración educativa desarrollará el régimen que permita la publificación de los centros atendiendo a sus necesidades ordinarias de planificación.

LIDERGO BERRIAK ETA GOBERNANTZA-EREDUAK

77

NUEVOS LIDERAZGOS Y MODELOS DE GOBERNANZA

Ikasleak ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa ahalduntzeak lidergoen eta gobernantza-ereduen ikuspegi eraldatzailea dakar berekin, bai hezkuntza-prozesuaren barruan, bai eskola-antolamenduan, bai Euskal Hezkuntza Sistema osoan.

78

El empoderamiento del alumnado como sujeto activo del aprendizaje conlleva una visión transformadora de los liderazgos y de los modelos de gobernanza tanto en la organización escolar como en el conjunto del Sistema Educativo Vasco.

Aldi berean, hezkuntza-komunitatearen konplizitatea eta konpromisoa bilatuko da, betiere sistema hobetu eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta ziurtatzeko. Horrek denei eskatzen die egiteko moduen gaineko gogoeta, bakarkako moduetatik lidergo orekatu eta komunitariora igarotzeko.

80

Al mismo tiempo, se buscará la complicidad y el compromiso de la comunidad educativa, para mejorar el sistema y asegurar el éxito educativo de todo el alumnado. Esto invita a todos a reflexionar sobre las formas de hacer, para transitar de las formas individuales a un liderazgo equilibrado y comunitario.

Eskola-antolamenduan, arrakasta-faktore erabakigarria da zuzendaritza-taldea, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzako praktikak sustatzeko. Horretarako, zuzendaritza-taldeak hautatu, prestatu eta aitortzeko prozedura berariazko bati ekingo zaio, proiektu kooperatiboak asmatzeko eta hainbat arlotan proposamenak egiteko topaguneak sortuz.

81

En la organización escolar, el equipo de dirección constituye un factor de éxito determinante, de cara a la promoción de prácticas colaborativas en el conjunto de la comunidad educativa. En consecuencia, es necesario poner en marcha un procedimiento específico de selección, formación y reconocimiento de los equipos directivos,

creando espacios de encuentro para idear proyectos cooperativos y elaborar propuestas en diferentes áreas.

82 Hezkuntza-komunitatea

La comunidad educativa

83 Hezkuntza-proiektuen aniztasunak dakarren aberastasunak biltzen ditu ikastetxeak, elkarrengandik ikasiz proiektu oro ikasle eta familien errealitatera egokitzeko eta gardentasunez eta kontuen berri ematearekin, hezkuntzarako ikuspegi berriztatzailea delarik jomuga. Ardatza ikaslea izanik, ikasle bakoitza bere gaitasunaren gehiengora iristen dela bermatzea da helburua. Ikaslea sostengatu eta egunero hezteko prozesu honetan, laguntzaile izango dira, eskolaz gain, familiak eta eragile soziokulturalak.

El centro educativo recoge las riquezas derivadas de la diversidad de proyectos educativos, aprendiendo unos de otros para adecuar todo proyecto a la realidad del alumnado y de las familias, con transparencia y rendición de cuentas, con un enfoque innovador desde el punto de vista de la educación. Se trata de garantizar que, situado el eje en el alumnado, cada alumno alcance el más alto grado en su competencia. En ese proceso de apoyo y educación diaria del alumnado colaborarán, además de la escuela, las familias y los agentes socioculturales.

84 Komunitate osoak barneratu behar ditu hezkuntza-eragileek dituzten ezaugarriak (mehatxuak zein aukerak):

La comunidad en su conjunto debe interiorizar las características (amenazas y oportunidades) de los agentes educativos:

85
- Etengabeko aldaketa eta ziurgabetasuna
  - (i) aurrerapen zientifiko eta teknologikoak;
  - (ii) dilema moral berriak;
  - (iii) aldaketak harremanetan, lanean, ekonomian eta ohituretan;
  - (iv) intoxikazioa eta manipulazioa.

- Cambios continuos e incertidumbres
  - (i) avances científicos y tecnológicos;
  - (ii) nuevos dilemas morales;
  - (iii) cambios en las relaciones, trabajo, economía y costumbres;
  - (iv) intoxicación y manipulación.

86
- Globalizazioa
  - (i) norbanakoaren izaera, kultura eta hizkuntza;
  - (ii) kultura anitzetik kulturartekoasuneko trantsizioa;
  - (iii) eleaniztasuna;
  - (iv) lankidetzan aritzea/lehiatzea;
  - (v) pentsamendu kritikoa;
  - (vi) informazio fidagarriaren hautaketa.

- Globalización
  - (i) Naturaleza, cultura y lengua del individuo;
  - (ii) transición de la multiculturalidad a la interculturalidad;
  - (iii) plurilingüismo;
  - (iv) cooperación/competencia;
  - (v) pensamiento crítico;
  - (vi) selección de información fiable.

87
- Digitalizazioa
  - (i) konektibitatea;
  - (ii) gailuak/tresnak;
  - (iii) eten digitalak;
  - (iv) plataformak;
  - (v) ikaskuntza, ahalduntze eta partaidetzarako teknologiak.

- Digitalización
  - (i) conectividad;
  - (ii) dispositivos/herramientas;
  - (iii) interrupciones digitales;
  - (iv) plataformas;
  - (v) tecnologías para el aprendizaje, el empoderamiento y la participación.

88
- Klima-aldaketa
  - (i) migrazio-mugimenduak;
  - (ii) jasangarritasuna;
  - (iii) zaurgarritasun berriak;
  - (iv) ondasun komunaren ekonomia zirkularra;

- Cambio climático
  - (i) movimientos migratorios;
  - (ii) sostenibilidad;
  - (iii) nuevas vulnerabilidades;
  - (iv) economía circular del patrimonio común;

(v) erantzukizuna eta inguruaren zaintza.

(v) responsabilidad y cuidado del entorno.

Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa

89 Empoderamiento y liderazgo pedagógico de las direcciones de los centros

Legeak eskola-zuzendaritzarako eredu propio baten aldeko apustua egiten du eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko profil egokiak eta motibatuak identifikatuko ditu. Eredu horrek berekin dakar (i) kudeaketan eta lidergoan prestakuntza integrala eta espezializatua izatea; (ii) eskola-zuzendaritzei laguntzeko eredua, administrazioko langileen errefortzuaren bidez zuzendaritzaren zeregin burokratikoak murriztuz. Hartara, zuzendaritzak arreta jarri ahal izango du alderdi pedagogikoetan, talde-harremanetan, irakasleen antolaketan eta egungo hobekuntza- eta bikaintasun-plan propioen sustapenean.

90 La ley apuesta por un modelo propio de Dirección escolar, e identificará perfiles adecuados y motivados para el ejercicio de la función directiva. Este modelo implica (i) una formación integral y especializada en gestión y liderazgo; (ii) un modelo de apoyo a las Direcciones escolares, reduciendo las tareas burocráticas de la Dirección mediante el refuerzo del personal administrativo. De esta forma, la Dirección podrá centrarse en los aspectos pedagógicos, relaciones grupales, organización del profesorado, así como en el impulso de los actuales planes propios de mejora y excelencia.

Zuzendaritza sendo bat behar du ikastetxe orok eskola-komunitatea estrategia irmo batez gidatuko duena, erabakiak hartzeko autonomia izango duena eta lortu beharreko emaitzekiko erantzukizuna bere gain hartuko duena. Bi dira gakoak: autonomia eta eskumenak, hau da, egiteko aukerak eta ebaluatzeko gaitasuna.

91 Todo centro precisa una Dirección sólida, que lidere a la comunidad escolar con una estrategia sólida y autonomía en la toma de decisiones, y que asuma la responsabilidad por los resultados a obtener. Dos son las claves: autonomía y competencias, es decir, posibilidades de realización y capacidad de evaluación.

Zuzendari eta zuzendaritza-talde profesionalei goi-mailako eskakizunak egokitzen zaizkie:

92 A los directores y equipos directivos profesionales les corresponden requisitos de alto nivel:

- eremu kurrikularrari dagozkion heziketa eta lege-esparruak ezagutu eta bere testuinguruan garatzeko gaitasuna;

93
- capacidad de conocer y desarrollar en su contexto los marcos educativos y legales correspondientes al ámbito curricular;

- baliabideen kudeaketa etengabe hobetzeko ezaguera eta hezkuntza-komunitateak eskaintzen dituen aukerak saretzeko gaitasuna;

94
- conocimiento para la mejora continua de la gestión de los recursos y capacidad de socializar las oportunidades que ofrece la comunidad educativa;

- elkarbizitzarako giroa etengabe sortu eta hobetzeko gaitasuna;

95
- capacidad de crear y mejorar permanentemente el clima de convivencia;

- kudeaketa bizia eragiteko gaitasuna, norbere ardurako ikastetxean eta ingurukoekin elkarlanean.

96
- capacidad de llevar a cabo una gestión dinámica en el centro educativo de su responsabilidad, en colaboración con las personas de su entorno.

Horrek eskatzen du (i) errendimendu handiko prestakuntza berezitua; (ii) profil horretako zuzendaritza-erantzukizunek dakarten maila pertsonaleko zein taldeko baliabide nahikoak; (iii) erantzukizun eta

97 Esto requiere (i) formación especializada de alto rendimiento; (ii) recursos suficientes, tanto a nivel personal como colectivo, en coherencia con las responsabilidades directivas de este perfil; (iii) compensación económica y reconocimiento

| | | |
|---|---|---|
| eskaera horiek eskatzen duten neurriko irabazi ekonomikoak eta errekonozimendu soziala. | | social en consonancia con tales responsabilidades y requerimientos. |
| Ikastetxeen lankidetza-gobernantza | 98 | Gobernanza colaborativa de centros educativos |
| Legeak aurreikusten duen lankidetza-gobernantzak eskola-komunitate osoa ordezkatuko duen organo bat eskatzen du, plan estrategikoari eta urteko planari buruz erabakiko duena, kudeaketa eta emaitzak ebaluatuko dituena eta erantzukizuna, inplikazioa, berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea erabiliko dituena. | 99 | La gobernanza colaborativa prevista por la ley requiere un órgano que represente al conjunto de la comunidad escolar, que decida sobre su plan estratégico y su plan anual, y que evalúe la gestión y los resultados con arreglo a los principios de responsabilidad, implicación, innovación, transparencia y rendición de cuentas. |
| Ebaluazioa sistematizatu beharra dago, hobetzeko tresna gisa onartuz eta elkarri kritika konstruktiboak egiten ikasiz, irakasleak erdigunean dituzten ikasleen gaitasun eta zailtasunak zehaztu, lehenengoak potentziatzeko eta bigarrenetan laguntzeko. | 100 | Es preciso sistematizar la evaluación, asumiéndola como instrumento de mejora y aprendiendo a realizar críticas constructivas mutuas, determinar las capacidades y dificultades del alumnado, en cuyo centro se ubica el profesorado, a fin de potenciar las primeras y ayudar en las segundas. |
| Programa-kontratua | 101 | Contrato-programa |
| Lau urtean behin, Eusko Jaurlaritzak plan estrategiko bat egingo du, ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna areagotzeko lan-ildo nagusiak zehazteko. Plan hori legebiltzarrean aurkeztuko da, ezagutu, ekarpenak egiteko eta eztabaidatzeko. Euskal ikastetxe publikoak ez ezik, titulartasun pribatuko ikastetxeek ere, ahalegin horretan modu kontrastatuan laguntzen badute, urte anitzeko programa-kontratu espezifikoak izenpetu ahal izango dituzte, hark ezarritako baldintzetan. | 102 | Cada cuatro años, el Gobierno aprobará un plan estratégico que defina las principales líneas de trabajo para incrementar la equidad y la excelencia educativa. Ese plan será presentado en el Parlamento, para su conocimiento, recabar aportaciones y debate. Además de los centros educativos públicos vascos, los centros de titularidad privada que colaboren de forma contrastada con dicho esfuerzo podrán suscribir contratos programa específicos de carácter plurianual en las condiciones que se establezcan. |
| Programa-kontratua tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta plangintza estrategikorako tresna da, plan horretako gidalerroak gauzatzen laguntzeko. Bertan, programan sartzeko baldintzak, esleitutako aurrekontua, ikastetxeari esleitzen zaizkion baliabide teknologikoak eta pertsonalak eta ebaluazioaren emaitzen kudeaketa-adierazleak zehazten dira. Hezkuntza-administrazioak, halaber, beste erakunde publiko batzuekin programa-kontratu batzuk egin ahal izango ditu, plan estrategikoaren helburuak lortzen laguntzeko. | | El contrato-programa es el instrumento jurídico, económico, financiero y de planificación estratégica para facilitar la ejecución de las directrices de dicho Plan. En él, se detallan las condiciones de acceso al programa, el presupuesto asignado, los recursos tecnológicos y personales que se asignan al centro y los indicadores de gestión de los resultados de evaluación. La Administración educativa podrá asimismo concretar otros contratos programa con otras entidades públicas para coadyuvar en la consecución de los objetivos del plan estratégico. |
| Administrazioen arteko hezkuntza-kogobernantza | 109 | Cogobernanza educativa entre administraciones |
| Hezkuntza-komunitateak ikas/irakas prozesuetan esku hartzen duten erakundeen inplikazioa eta elkarlana bultzatuko ditu. Udalek bereziki eginkizun sakona hartu dezakete matrikulazio-prozesuan, onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak | 110 | La comunidad educativa impulsará la implicación y colaboración de las instituciones que intervengan en los procesos de enseñanza-aprendizaje. Los ayuntamientos pueden, señaladamente, asumir un papel importante en el proceso de matriculación, acercar a las familias |

indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko sareak sortu edota elikatzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta, azken batean, eskola-komunitatea sendotzeko.

los protocolos de admisión, reforzar las infraestructuras, fomentar la convivencia, crear y/o alimentar redes de cohesión, fomentar el uso del euskera y, en definitiva, fortalecer la comunidad escolar.

Gizarte- eta hezkuntza-programak: administrazioen erantzunkidetasuna

111 Programas socioeducativos: corresponsabilidad de las administraciones

Legeak aurreikusiko du ikastetxeek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta aisialdiko planak eta programen sustapena, tokiko baliabideen kudeaketan modu positiboan eragiteko, bizikidetza hobetzeko eta ikasle guztien inklusioa eta arrakasta hobetzeko. Jaurlaritzari dagokio, bere eskumenen esparruan, akordio horiek udalekin eta foru-aldundiekin arautu eta formalizatuko dituen esparrua ezartzea.

112 La ley preverá que los centros educativos promuevan planes y programas socioeducativos y de tiempo libre que incidan de manera positiva en la gestión de los recursos locales, mejoren la convivencia y promuevan una mejora en la inclusión y el éxito del conjunto del alumnado. Corresponderá al Gobierno, en el ejercicio de sus competencias, establecer el marco que regule y formalice dichos acuerdos con los ayuntamientos y las diputaciones forales.

Tokiko hezkuntza-kontseiluak

113 Consejos educativos locales

Familien, ikastetxeen eta udalerrien arteko benetako konpromisoa elikatzen duen giro kooperatiboa ezinbesteko lan-tresna da, jarrera profesional irekia eta eskuzabala erakusten duten heinean ikasleen onura dakartelako. Gogoan hartzeko hiru irizpide:

(i) ikaskuntzak denbora eta ahalegina eskatzen ditu;
(ii) bizikidetzak oinarrizko arau batzuk errespetatu behar ditu;
(iii) adingabeek helduen zaintza eta laguntza behar dute.

114 El clima cooperativo que alimenta el compromiso real entre familias, centros y municipios constituye una herramienta de trabajo imprescindible, dado que, en la medida en que tales agentes muestren una actitud profesional abierta y generosa, contribuyen al beneficio del alumnado. Se deben tener en cuenta tres criterios:

(i) el aprendizaje requiere tiempo y esfuerzo;
(ii) la convivencia debe respetar unas normas básicas;
(iii) los menores necesitan el cuidado y la ayuda de los adultos.

Izan ere, gero eta gehiago ari da hedatzen herritarrak hezteko ardura partekatua delako ideia. Premisa horretatik abiatzen gara eskola eta gizarte-ingurua elkarreraginean jarduten duten bi esparru gisa ulertzen baitugu; batak zein besteak elkarren beharra dute. Alegia, eskola gizartearen isla den modu berean da gizartea eskolek hezitako herritarren hartzaile zuzena.

115 De hecho, cada vez se extiende más ampliamente la idea de que educar a la ciudadanía es una responsabilidad compartida. Partimos de esa premisa, porque entendemos la escuela y el entorno social como dos ámbitos en los que ambas instancias interactúan; una y otra se necesitan mutuamente. Es decir, de la misma manera que la escuela es un reflejo de la sociedad, la sociedad es receptora directa de la ciudadanía educada por la escuela.

Legeak tokiko hezkuntza-kontseiluak eratzea aurreikusten du (udal eskola kontseiluak), batetik, zenbait baliabide komunitario artikulatzeko ikasleen ongizatearen eta heziketaren mesedetan, eta, bestetik, hezkuntza-komunitate guztiaren partaidetza bilatu eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketa sustatzeko.

116 La ley prevé la constitución de consejos locales de educación (consejos escolares municipales), con el propósito, por un lado, de articular una serie de recursos comunitarios en beneficio del bienestar y la educación del alumnado; por otro, para buscar la participación del conjunto de la comunidad educativa y fomentar la conjunción entre educación formal y no formal.

Tokiko Eskola Kontseiluari kontsulta egingo zaio honako eduki edota jardunetan:

(i) hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne;

(ii) hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko;

(iii) ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak, eta

(iv) udalerria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea.

117 Se consultará al Consejo Escolar Local respecto a los siguientes contenidos y/o actuaciones:

(i) identificación de las necesidades educativas, distribución de la oferta y determinación de los criterios de escolarización del alumnado, incluidos los derivados de la planificación urbana;

(ii) actuaciones y medidas necesarias para contribuir a garantizar una idónea y equilibrada escolarización del alumnado con necesidades específicas de apoyo educativo, a fin evitar la segregación del alumnado por razones socioeconómicas o de otra naturaleza;

(iii) actuaciones municipales que afecten al funcionamiento de los centros escolares, y

(iv) constitución de patronatos, consorcios e instituciones educativas cuyo ámbito sea el municipio.

Euskadiko Eskola Kontseilua

118 Consejo Escolar de Euskadi

Hezkuntza-komunitateak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean parte hartzen duen organo gorena da. Gainera, kontsulta- eta aholkularitza-organotzat du Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren arloan proposatu edo emandako arau-dokumentuak. Hezkuntza arloko gobernantza kolaboratiboan parte hartuko du.

119 Es el órgano superior de participación de la comunidad educativa en la programación general de la enseñanza no universitaria. Es, además, órgano de consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco respecto a los documentos normativos propuestos o emitidos en materia educativa. Participará en la gobernanza colaborativa en materia educativa.

Euskadiko Eskola Kontseilua eraberritu egingo da, lege berriaren printzipio eta helburu nagusiekin koherentzian.

Bertan, ikastetxeek zein tokiko hezkuntza-kontseiluek, hezkuntza- eta gizarte-eragileek ordezkaritza izango dute. Eginkizun nagusiak dira:

(i) udal zein ikastetxeetako kontseiluekin sinergiak sustatzea,

(ii) ikasleek zein ikastetxeek parte har dezaten erraztea,

(iii) (urteroko) txostenaren proposamenak hurbiltzea,

(iv) Hezkuntza Sailarekiko harremana eta Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari kontu-ematea sistematizatzea.

120 El Consejo Escolar de Euskadi será reformado, en coherencia con los principios y objetivos generales de la nueva ley.

Contará con una representación de los centros escolares, de los consejos educativos locales y de los agentes sociales. Sus principales funciones serán:

(i) promover sinergias con los consejos de ayuntamientos y centros,

(ii) facilitar la participación del alumnado en el centro,

(iii) acercar las propuestas del informe (anual),

(iv) sistematizar la relación con el Departamento de Educación y la rendición de cuentas en la Comisión de Educación del Parlamento.

Halere, lege berri honek ikasle eta ikastetxe ahaldunduak dituenez gune eta eremu nagusitzat, horren arabera eraldatuko dira euskal hezkuntzaren organo eta

No obstante, dado que esta nueva ley tiene como principales espacios y ámbitos al alumnado y a los centros empoderados, se transformarán en

azpiegitura guztiak, bai eta Euskadiko Eskola Kontseilua ere. Hori horrela, legea onartzen denetik bi urtera aurkeztuko ditu Legebiltzarrean bere helburuak, funtzioak eta konpromisoak.

consecuencia todos los órganos e infraestructuras de la educación vasca, así como el Consejo Escolar de Euskadi. Así, presentará ante el Parlamento sus objetivos, funciones y compromisos a los dos años de su aprobación.

Euskadiko Eskola Kontseiluak lekua egin diezaioke guraso-elkarte edo -federazio txikien ordezkaritzari ere.

121 El Consejo Escolar de Euskadi podrá contar con una representación de las pequeñas asociaciones o federaciones de padres y madres.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

122 Consejo de la Escuela Pública Vasca

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua partaidetzarako erakunde gisa eratuko da. Gaitasun eta autonomia nahikoa izango du bere beharrak eta interesak identifikatu eta garatzeko, ikastetxe publikoen lana eta hezkuntza-lorpenak ikusarazteko, ingurunean integratzeko eta ikastetxeen arteko lankidetza-lana bultzatzeko, bere nortasunaz jabetzeko eta kalitate eta ezagutzaren aldetik erreferentea izango den euskal eskola publikoa bultzatzeko. Bereziki indarra egingo da euskal eskola publikoko ikasleen, familien eta profesionalen parte-hartzea sustatzeko.

123 El Consejo de la Escuela Pública Vasca se constituirá como ente de participación. Tendrá capacidad y autonomía suficiente para identificar y desarrollar sus necesidades e intereses, visibilizar el trabajo y los logros educativos de los centros públicos, propiciar su integración en el entorno e impulsar el trabajo de colaboración entre los centros, tomar conciencia de su personalidad propia e impulsar una escuela pública vasca referente en calidad y conocimiento. Se hará especial hincapié en fomentar la participación del alumnado, familias y profesionales de la escuela pública vasca.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak, urte anitzeko plan estrategikoen bidez, ikastetxe publikoen arteko elkarlana sustatuko du, eta jardunbide egokiak transmititzeko sareak sortuko ditu.

124 El Consejo de la Escuela Pública Vasca, a través de sus planes estratégicos plurianuales, promoverá la colaboración entre centros públicos, y creará redes de transmisión de buenas prácticas.

Era berean, gizartea ikastetxe publikoen alde aktiboki inplikatzen duten kanpainak bultzatuko ditu.

Asimismo, impulsará campañas que impliquen activamente a la sociedad en defensa de los centros públicos.

Kontseiluaren eginkizuna izango da eskola publikoaren solaskide izatea, botere publikoei gomendioak egitea, ikastetxe publikoak beren ingurunean integratzen laguntzea, bai eta eskolaren, enpresaren eta unibertsitatearen artean harremanak ezartzea, edo hezkuntza-administrazioak udalekin hitzarmenak egitea ere, elkarrekiko erabilgarritasuneko prestazioak errazteko, hala nola, liburutegiak, parkeak, kirol-instalazioak…

Será función del consejo ejercer de interlocutor de la escuela pública, efectuar recomendaciones a los poderes públicos, propiciar la integración de los centros públicos en su entorno, así como establecer relaciones entre la escuela, la empresa y la Universidad, o impulsar convenios de la Administración educativa con los ayuntamientos, para facilitar prestaciones de utilidad recíproca, como bibliotecas, parques, instalaciones deportivas…

Lege berria onartzen denetik gehienez urtebetera eratuko den Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluak plan estrategikoa garatzeko euskal eskola publikoak izan behar duen proiektuak beharrezko dituen bitartekoak identifikatzeko, garatzeko eta aktibatzeko neurriak hartuko ditu.

El Consejo de la Escuela Pública Vasca, que se constituirá a más tardar un año después de la aprobación de la nueva ley, adoptará las medidas necesarias para identificar, desarrollar y activar los medios necesarios para el desarrollo del plan estratégico, el proyecto que debe contar con la escuela pública vasca.

IKASLE ELEANIZTUNAK HELBURU: HIZKUNTZEN ERABILERA ETA IKASKUNTZA

125 POR UN ALUMNADO PLURILINGÜE: USO Y APRENDIZAJE DE LAS LENGUAS

126

Euskal Hezkuntza Sistemak proiektu eleaniztun batean inbertituko du, dimentsio guztietan: irakasleak eta ikasleak inplikatuko ditu, komunikazio eraginkorrerako gaitasunak garatu ditzaten.

El Sistema Educativo Vasco invertirá en un proyecto plurilingüe en todas sus dimensiones: implicará al profesorado y al alumnado, de forma que ambos desarrollen capacidades para una comunicación eficaz.

126 bis

Hezkuntza-proiektu eleaniztunen alde egiten dugu, euskara ardatz hartuta, gure bi hizkuntza ofizialen eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza eraginkorra sustatzeko, eta, era berean, ikasleen beste hizkuntza batzuen ikusgarritasuna bultzatzeko. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, esparru komun baten barruan. Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, haien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

Apostamos por proyectos educativos plurilingües, con el euskera como eje, que promuevan una enseñanza efectiva de nuestras dos lenguas oficiales y, al menos, una lengua extranjera, y que propicien asimismo la visibilidad de otras lenguas del alumnado. Todo ello se debe estructurar en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común. Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística.

127

Hezkuntza da ardatz nagusia egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapenerako, belaunaldi berriek gaitasun egokia lor dezaten bermatzen duelako eta gizarte-kohesiorako giltzarria ere badelako. Helburua argia da: ikasle guztiek gaitasun komunikatiboa izatea ofizialak diren bi hizkuntzetan, egoera errealera egokituta. Euskararen erabilera errazteko, eskola-komunitatea motibatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartuko dira.

La educación es el eje central para la recuperación de cualquier lengua en situación minorizada, puesto que garantiza que las nuevas generaciones adquieran una competencia adecuada, y es, al tiempo, clave para la cohesión social. El objetivo es que la totalidad del alumnado adquiera capacidad comunicativa en ambas lenguas oficiales, adaptada a la situación real. Se adoptarán medidas que faciliten el uso del euskera, estimulen la motivación de la comunidad escolar o refuercen el uso del euskera en la relación entre el alumnado.

128

Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartutako zenbait proposamen jasoko ditu legeak, euskarari buruzko diskurtso partekatua sortzeko eta euskararen aldeko giro egokia indartzeko, Lanbide Heziketan eta hezkuntza ez-formalean euskararen presentziaren jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa bultzatzeko, hezkuntzako profesionalen komunikazio-gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera bideratzeko modu berriak ikertzeko eta garatzeko.

La ley recogerá algunas de las propuestas aprobadas por el Consejo Asesor del Euskara con el propósito de generar un discurso compartido sobre el euskera y de fortalecer el ambiente propicio en torno a dicha lengua, de impulsar un salto cuantitativo y cualitativo en la presencia del euskera en la Formación Profesional y en la educación no formal, de mejorar la capacidad comunicativa de los profesionales de la educación y de investigar y desarrollar nuevas formas de enfocar el aprendizaje de las lenguas y su uso.

129

Norberaren zein kanpoko ebaluazioen emaitzek eta gizarte-aldaketek hizkuntzen irakaskuntzan beharrezko egiten dituzten aldaketa metodologikoei ekingo zaie ikasleen gaitasun guztiak hobetzeko.

Se abordarán los cambios metodológicos que los resultados de las evaluaciones, tanto propias como externas, y los cambios sociales hagan necesarios en la enseñanza de las lenguas, a fin de mejorar todas las competencias del alumnado.

130

Euskal Hezkuntza Sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa

El marco plurilingüe e intercultural del Sistema Educativo Vasco

131

Legeak hezkuntza eleaniztunaren eta kulturen arteko hezkuntzaren alde egingo du, hizkuntza- eta kultura-kontzientzia zabala sustatzeko, bi hizkuntza · ofizialen eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten bidez artikulatua,

La ley abogará por una educación plurilingüe e intercultural, con el objetivo de promover una conciencia lingüística y cultural amplia, articulada a través de dos lenguas oficiales y, al menos, una lengua extranjera, para

gizarte-kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko duten gaitasuna bermatzeko. Hori dela eta, ikasle guztiek, familia- jatorria edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen aldeko apustua egiten da.

garantizar la cohesión social y la capacidad de comunicación de la ciudadanía en ambas lenguas oficiales. Por ello, apuesta por hacer posible que la totalidad del alumnado, independientemente del origen familiar, conozca, al acabar la enseñanza obligatoria, las dos lenguas oficiales de Euskadi y tenga conocimientos, como mínimo, de una lengua extranjera.

Horiek guztiek ikaskuntzak bideratuko dituzte, eraginkortasuna areagotzeko.

Todas ellas vehicularán aprendizajes, para incrementar así su efectividad.

131 bis

Ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza gaitasun-mailei dagokienez, ezinbestekoa da horiek zehaztea, helburuak ezarri eta emaitzetan oinarritutako plangintzak diseinatu ahal izateko. Euskara ardatz nagusi duen sistema eleaniztuna proposatzen den neurrian, honako gaitasun-maila hauek ezarriko dira gutxieneko helmuga moduan: bi hizkuntza ofizialetan Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 Lehen Hezkuntza amaitzerakoan eta B2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan, Europako herrialdeetan ohikoa denez; atzerriko hizkuntzan, A2 eta B1 maila hurrenez hurren. Egindako ebaluazioetan ikusi da eskuratutako euskara-maila ez dela beti horretara heltzen eta horren arrazoiak aztertuko dira, ikastetxeak hobekuntzen bidez maila horietara heldu daitezen neurriak hartu ditzagun. Hobetze bidean ikerketa eta berrikuntza ezinbestekoak dira, eta planak, epeak eta baliabideak zehazterakoan, ikastetxeen abiapuntuak eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak direla kontuan hartu beharko da.

En cuanto al nivel de competencia lingüística que debe adquirir el alumnado, tenemos que partir en primer lugar de su definición para, a continuación, poder establecer una serie de objetivos y diseñar planes basados en resultados. En la medida en que se proponga un sistema plurilingüe con el euskera como eje central, estableceremos como objetivo mínimo los siguientes niveles de competencia: alcanzar el nivel B1 del Marco Común Europeo de Referencia para las dos lenguas oficiales al finalizar la Educación Primaria y alcanzar el nivel B2 al finalizar la Educación Secundaria obligatoria; en cuanto a la lengua extranjera, los niveles A2 y B1, respectivamente. De las evaluaciones realizadas se desprende que el nivel de euskera adquirido no siempre alcanza los estándares deseados, por lo que se procederá a analizar los motivos para implementar mejoras y adoptar medidas que permitan a los centros alcanzar el nivel determinado. Para mejorar es imprescindible la investigación y la innovación, y a la hora de concretar planes, plazos y recursos habrá que tener en cuenta que el punto de partida y las situaciones sociolingüísticas de cada lugar son muy diferentes.

Legeak, euskara ardatz hartuta, hezkuntza eleaniztunaren alde egingo du proiektu integral bidez, hizkuntza-ikaskuntzan eragin biderkatzailea sortzeko. Ildo horretan, Euskal Hezkuntza Sistemak apustu egiten du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun egokia eta nahikoa izatea eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza baten ezagutza izatea ahalbidetzearen alde.

La ley abogará por una educación plurilingüe, con el euskera como eje, mediante proyectos integrales, generando un efecto multiplicador en el aprendizaje lingüístico. En este sentido, el Sistema Educativo Vasco apuesta por hacer posible que la totalidad del alumnado, independientemente del origen familiar, al acabar la enseñanza obligatoria, tenga una competencia lingüística adecuada y suficiente en las dos lenguas oficiales de Euskadi, y tenga conocimientos, como mínimo, de una lengua extranjera.

Hizkuntzen tratamendu integrala bultzatuko da, curriculum-plangintzatik zein curriculumetik kanpoko esparruan, hizkuntza horien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Horiek guztiek ikaskuntzak

Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, tanto desde la planificación curricular como extracurricular, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística. Todas ellas vehicularán aprendizajes para incrementar así su efectividad.

bideratuko dituzte, eraginkortasuna areagotzeko.

Helburu horiek ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratuko dira, legeak zehaztutako esparru komun baten barruan. Hizkuntza-proiektuaren jarraipena egingo da eta, hala badagokio, egokitu egingo da, hizkuntza-helburuak lortzea eta gainerako gaietan gaitasunak eskuratzea bermatzeko.

Hori guztia ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratuko da esparru komun baten barruan:

- Helburua da ikasle guztiek komunikazio-gaitasuna eskuratzea bi hizkuntza ofizialetan, ikastetxe bakoitzaren benetako egoerara egokituta, abiapuntuko egoera kontuan hartuta eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasleek gure bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, behar bezala jakitea eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat jakitea, hezkuntza-etapa hori amaitzean komunikazio-maila egokia izango duena.

- Hezkuntza eleaniztun eta kulturen arteko hezkuntzaren alde egingo da, hizkuntza- eta kultura-sentiberatasuna sustatzeko.

- Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, haien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

- Ikasleen gaitasun guztiak hobetzeko, beharrezko diren neurriak ezarriko dira hizkuntza-helburuak lortzen direla eta gainerako ikasgaietan konpetentziak eskuratzen direla bermatzeko, ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartuta.

- Euskararen erabilera errazteko, eskola-komunitatea motibatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartuko dira.

- Euskararen erabilera lehenetsiko eta sustatuko da jarduera-harremanetan eta profesionalen arteko harremanetan, bai eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.

Estos objetivos se estructurarán en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común definido por la ley. El proyecto lingüístico será objeto de seguimiento y, en su caso, adaptación, para garantizar tanto el logro de los objetivos lingüísticos como la adquisición de competencias en el resto de las materias.

Todo ello se estructurará en el proyecto lingüístico de cada centro, dentro de un marco común:

- El objetivo es que la totalidad del alumnado adquiera capacidad competencia comunicativa en ambas lenguas oficiales, adaptada a la situación real de cada centro educativo, teniendo en cuenta la situación de partida y garantizar al finalizar la Educación Secundaria Obligatoria, el conocimiento práctico suficiente de nuestras dos lenguas oficiales, euskera y castellano, por parte del alumnado, así como un conocimiento suficiente de, como mínimo, una lengua extranjera, con un nivel adecuado de comunicación al finalizar dicha etapa educativa.

- Se abogará por una educación plurilingüe e intercultural, con el objetivo de promover una conciencia lingüística y cultural amplia.

- Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, teniendo en cuenta su función y su situación sociolingüística.

- Con el fin de mejorar las competencias del alumnado, se establecerán las medidas necesarias para garantizar el logro de los niveles lingüísticos y la adquisición de competencias en todas las materias, teniendo en cuenta el punto de partida y las características sociolingüísticas de cada entorno.

- Se adoptarán medidas que faciliten el uso del euskera, estimulen la motivación de la comunidad escolar y refuercen el uso del euskera en la relación entre el alumnado.

- Se primará fomentará el uso del euskera en las relaciones de actividad y entre profesionales, así como en las relaciones

- Irakasleen prestakuntzak hizkuntzen eta euskal kulturaren irakaskuntzako metodologiak hobetzea aurreikusiko du.
- Ikastetxeek hizkuntza-proiektu bat egingo dute beren hezkuntza-proiektuaren barruan, beren ikuspegi metodologikoa barne, ingurune soziolinguistikoa eta ikasleen profilak kontuan hartuta, hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran ikasleek beharrezko hizkuntza-mailak eta konpetentziak lor ditzaten. Ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatuko dira.

- Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da.

Ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan zehaztuko dira esandako puntu guztiak garatzeko ekintza eta neurri zehatzak, bai eta Hezkuntza Sailarekin batera horien guztien jarraipena egiteko proposaturiko adierazleak ere.

formales y no formales entre el alumnado y profesorado.

- La formación del profesorado contemplará la mejora en las metodologías de la enseñanza de las lenguas y la cultura vasca.

- Los centros educativos elaborarán un proyecto lingüístico como parte de su proyecto educativo, incluyendo su enfoque metodológico, teniendo en cuenta el entorno sociolingüístico y los perfiles del alumnado, de forma que, al final de cada etapa educativa, este haya adquirido los niveles lingüísticos y competencias necesarios. Se desarrollarán criterios para la enseñanza y el uso de las lenguas en el proceso de aprendizaje.

- Se deberá realizar un seguimiento y evaluación del proyecto lingüístico de centro.

En el proyecto lingüístico de cada centro se detallarán las acciones y medidas concretas para desarrollar todas estas actuaciones, así como los indicadores propuestos para su seguimiento con el Departamento de Educación.

Euskal Hezkuntza Sistemak ikasleen gaitasun eleaniztuna garatuko du, hizkuntza guztien metodologia integratzaileen eta proiektu integralen bidez, eta eragin biderkatzailea sortuko du hizkuntza-ikaskuntzan. Hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango da, curriculum-plangintzatik zein curriculumetik kanpokotik, hizkuntza horien funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.

132 El sistema educativo vasco desarrollará la capacidad plurilingüe del alumnado, mediante metodologías integradoras y proyectos integrales de todas las lenguas, generando un efecto multiplicador en el aprendizaje lingüístico. Se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas, tanto desde la planificación curricular como extracurricular, teniendo en cuenta la su función y su situación.

Hezkuntza-administrazioak bermatuko ditu ikasleen hizkuntza-eskubideak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean egon daitezkeen gabeziak konpentsatzeko neurri eraginkor batzuk bultzatuko ditu.

133 La Administración educativa garantizará los derechos lingüísticos del alumnado. Asimismo, impulsará la adopción de medidas eficaces para compensar posibles carencias en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Gainera, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuek eta curriculum-proiektuek laguntza-neurriak aurreikusiko dituzte hizkuntza-arrazoiengatik ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat, ikasgaiak berandu ikastea saihesteko.

134 Los proyectos educativos y curriculares de cada centro contemplarán medidas de apoyo para el alumnado con dificultades de aprendizaje por razones lingüísticas, de forma que se evite el aprendizaje tardío de las materias.

Euskara, sistema eleaniztunaren ardatza

135 El euskera, eje vertebrador del sistema plurilingüe

Euskal Hezkuntza Sistemak euskararen ikaskuntzaren berme izan behar du, hizkuntza-proiektu integratuak abian jarriz. Helburua da ikasle euskaldun eleaniztunak lortzea, gainerako hizkuntzak eta kulturak errespetatuz gizarte-kohesiorako eragile aktiboak izatea.

136 El Sistema Educativo Vasco debe ser garantía del aprendizaje del euskera, mediante la puesta en marcha de proyectos lingüísticos integrados. El objetivo es conseguir un alumnado euskaldún plurilingüe, que sea, al mismo tiempo, agente activo de cohesión social desde el respeto a las demás lenguas y culturas.

Hala ere, eta euskara gizarte-hizkuntza normalizatua izan dadin eskolaren esku-hartzea ezinbestekoa bada ere, ez da nahikoa, hezkuntza-komunitateko zein gizarteko beste eragile batzuk ere ezinbestekoak baitira.

